




mana. «Miserikordiako gaixoak izan ziren erabili zituen modelo gehienak. Tratu berezia ematen zien, eta markesak balira bezala tratatzen zituen. Harentzat pertsonak balio zuen». Herritarrekin beriketan aritzea ere gustatzen zitzaion, eta Miserikordiako gaixoeekin egiten zuen moduan maiz



Nazionalista, ondorio guztiekin



Javier Ziga nazionalista zen. Iruñeko zinegotzi aukeratu zuten 1920ko otsailaren 8an. Udaletxeko lanarekin tartekatu zuen hiriburuko Euskal Zentroan izandako zuzendaritza karguak. 1930ean EAJra afiliatu zen, eta lehendakariorde izan zen udal batzordean. 1936an gerra jaiki zen eta Zigak Navarrerria kalean zuen etxean frontetik ihes egin zuen jendea, mugaz bestalde alde egin nahi zuten hainbat gudari eta jakiak edota sendagaiak eskatzen zituzten sindikalistak jaso zituen. Horretan zebilela, 1938ko apirilean atxilotu egin zuten, UGTko batailoi bateko komandante bati ihes egiten lagundu izanaz akusatuta. «Aita idealista hutsa zen. Arturo Kanpionen lagunmina, nazionalista barru-barruraino, eta onorio guztiekin», esan digu Mari Kruzek.



«Gizon ezin hobea izan zen. Ez zen ez infernukoa ez zerukoa, beti ilargian zegoen. Oso jantzia eta intelektuala zen, baina sineskorra, hodei artean bizi zen».

«Iruñeko kartzelan zirenak eta ez zirenak ikusi zituen. Lagun gehienak bizkarra eman zioten. Irujotarrekin egon zen eta Tuterako Akiles Kuadra Tuterako alkate eta anarkista nola fusilatu zuten ikusi zuen, eta hori guztia barruan geratu zitzaion».

→ Irene Arrizurieta

1977ko Euzko Gerra Zibilak markatutako gizona

1877ko azaroaren 25ean jaio zen, Gurasoak Zapateria kalean zuen atuko giroan iragan zuen haurtzaroko abildadea bazuela erakutsi ahal izateko Iruñeko Lanbide eta Arteak zentralizatu eta Eduardoko urteetan enfermermetako karterleku izan ziren bultzada erabakigarria eman zuten margolanari, Urdanpilleta lehen Fernando Arte Ederretako Akademiako baitzizkion. Espainiako hiriburuak eta Jose Santiago Garneloren irudiak bere estiloa zuen figurazioaren eragin bereganatuta, pintzel solasak eta Euskal Herria biziki maila altuak, haurtzaroko paisaiak eta Parisera joan arte ez zuen irakuriko. 1912tik 1914ra bitartean

egon zen Frantziako hiriburuan. Egonaldian Montmartre auzoan hainbat artista ezagutuko zituen, eta, Levi judua-
ren babespean orduan modan zeuden abangoardiei kasu
handirik egin gabe, bere bideari jarraituko zion. Garai
hartatik gorde dira Parisko paisaiak eta biluzi bat, eta Zi-
garen oihaletan kolorea eta bizitasuna da nagusi. I. Gerra
Mundiala hasi eta Zigak Iruñera itzuli beste irtenbiderik
ez zu izan. Herriko jende anonimoa irudikatzen duten
margo kostunbristak egiten jarraitu bazuen ere, erretra-
tuek hartuko zuten garrantzia ondorengo urteetan. Eza-
gutu zutenek gizon nekaezina izan zela diote. Dena dela,
Espainiako Gerra Zibilean kartzelan iragandako denborak
betiko marka utzi zuten artistarengan. Zigorrek hegala
moztu zizkion haren askatasun artistikoari eta bere lanak
ez zuen aurreko urteetan jarraitu zuen garapenik izan.

Zigak aurretik egindako bideari ekin zion, eta horretan sendotu zen: erretratuak, paisaiak eta bizipen kostunbrisak islatu zituen koadroetan. Artista lana, egun sona handia duten hainbat pintoreri klaseak ematearekin tartekatuzuen. Gerran bizi izandakoak bere lana pausatu zuen bezala, iruindarraren bizitza ere 1960ko ilbeltzaren 13an gelditu zen, Iruñeko Zangoza kalean zuen etxean.